

udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**



IZENBURUA:

Sasoian: Euskarazko Kirol Hedabidea.

EGILEA:

Aritz Mutiozabal Zabala

DATA:

2016/04/21



Aurkibidea

1. Sorrera.....	3
2. Hedabidearen ezaugarriak.....	4
3. Lan esperientziaren zertzelada nagusienak.....	6
4. Ondorioak eta aurrera begira.....	8



1. Sorrera

Urola Kosta Udal Elkartearen ekimenez sortu zen *Sasoian* kirol hedabidea, 2008ko irailean. Kirolaren bultzadarekin euskararentzat irakurle eta erabiltzaileak irabaztea zuen helburu, eta horretarako sortu ziren *Sasoian* aldizkaria eta webgunea. Urola Kostako Hitzak eskuratu zuen bi produktuak kudeatzeko ardura, lehiaketa bidez.

Lehiaketako baldintzek argi uzten zuten argitalpenaren edukien helburuak zeintzuk ziren: eskualdeko herritarrei, eta, batez ere, kirolari eta kirolzaleei tokiko kirol informazioa euskaraz eskaintzea, irakurtzera bultzatzea, kirola sustatzea, osasuntsu egoteko jarduera gisa, eta eskualdeko kirolaren errealitatea (profesionalena eta zaletuena) ezagutzera ematea. Horretarako, aldizkariaren hizkera argia eta irakurterraza izan behar zuela zehazten zuen, eta itxura atsegina eta egungoa eskaini, komunikazioan ardaztua. Kokalekuari dagokionez, Urola Kostako Udal Elkarteko udalerriak (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia) eta bertako kirolari, kirol talde eta eragileak nahiz zaleak eta kirol jarduerak hartuko zituen kontuan.

Eskualdeko kirolaren berri euskara hutsean ematea erronka handi bezain erakargarria zen, eta itxaropentsu ekin genion lanari. Kirolari buruzko euskara hutsezko argitalpenik ia ez zegoen garai hartan: Euskal Herrian, Donostiako Udalak *Mugi* izenekoa argitaratzen zuen, eta Urola Kostan *Sasoian* genuen; zortzi urte geroago kopurua ez da askorik areagotu. Beraz, aurrerapauso garrantzitsua izan zen euskal kazetagintzaren historian, eta ohore bat horretan lan egitea. Hondar ale hori jartzea. Hala ere, jakin bagenekien eskualdeko kirolzaleak kirol albisteak euskaraz irakurtzera erakarri beharko genituela. Erronka ez zen nekeza izan, eskualdea bera oso euskalduna delako eta euskarazko produktuak egiten eskarmentua dugulako (Urola Kostako Hitzak 12 urte bete ditu aurtan). Ondorioz, irakurleek eta kirolariek nahiz kirol elkarteek modu positiboan baloratu zuten tokiko kirol informazioa euskara hutsean jaso ahal izatea, ordura arte egondako hutsunea asetzen zuelako.



2. Hedabidearen ezaugarriak

Bi euskarri nagusi izan ditu *Sasoianek*: alde batetik, paperezkoa (aldizkaria bera) eta bestetik, digitala (webgunea). Garaiak eta komunikatzeko nahiz informatzeko moduak aldatuz joan dira proiektuarekin hasi ginenetik hona. Komunikabidearen beraren ibilbidean agerikoa izan da bilakaera hori: hasierako urteetan argitalpenari garrantzia handiagoa eskaintzen bazitzaion, azkenerako webguneak eta sare sozialek hartu zuten indar gehien. Batez ere egungo aro teknologikoak hala eskatuta, baina baita krisialdiak berak bultzatuta ere.

2.1. Aldizkaria

2.1.1. Atalak

Urola Kostako Hitzak 16 orrialdetako eskualde mailako kirol aldizkaria argitaratzen zuen, modu honetan egituratuta:

1. orrialdea: **Azala**. Edozein aldizkari edo egunkaritan bezalaxe, aldizkariaren aurpegia eta aurkezpena. Alean aurki zitezkeen eduki interesgarrien inguruko lehen laburpena ematen zitzaion irakurlari. Gainera, aurkibide funtzioa ere betetzen zuen, eduki bakoitza zein orrialdetan aurki zitezkeen zehaztuz.
2. orrialdea: **Aldizkariaren inguruko informazioa + iritzia + euskara**. Orrialde honetan, aldizkariaren inguruko informazio teknikoa joateaz gain, iritzi artikuluen edo irakurleen gutunen atala zen. Era berean, kirola eta euskara lotzen dituen edukiak hemen kokatzen ziren.
3. orrialdea: **'Beroketa ariketa'**. Osasunarekin lotutako atala; kirola modu egokian egiteko gomendioak ere ematen ziren.
- 4., 5., 6. eta 7. orrialdeak: **'Berriketan'**. Lau orrialdeko elkarriketa, sakona, eta goi mailako kirolari eskainia, batik bat.
8. eta 9. orrialdeak: **'Kronika'**. Kirol ekitaldi esanguratsuenaren inguruko erreportajea, edo ekitaldiaren beraren giroko kronika bat, bi orrialdetara landuta.
10. eta 11. orrialdeak: **'Taldeka'**. Eskualdeko kirol elkarteak ezagutarazteko baliatu genuen atal hau.
12. eta 13. orrialdeak: **'Kirolari gazte'**. Eskola kirolari eskainitako bi orrialde ziren. Eskolarteko probetan gaztetxoek lortutako emaitzak, gaztetxoei egindako elkarriketa laburrak, taldeen inguruko erreportajeak.



14. eta 15. orrialdeak: '**Hariari tiraka**'. Egunerokoan izandako albisteak webguneak jasotzen baziren ere, aldizkarian ere euren tartearen zuten. Horretaz gain, sailkapenak, emaitza nagusienak eta agenda ematen zuten.

16. orrialdea: '**Erronka**'. Erronken leioa izatea proposatu genuen. Kirolariek nahiz herritar arruntek kirol mailan eginiko lorpen bitxiak edo ikusgarriak nahiz errekor saiakerak.

2.1.2. Banaketa

Argitalpen bakoitzean 4.000 ale banatzen ziren Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako kiroldegi, kirol elkarte, liburutegi eta kultur etxe, ikastetxe eta toki publikoetan. Uda partean (uztailean) udalekuean ere banatzen zen, gazteengana iristeko. Horrez gain, Urola Kostako Hitzaren banatzen den merkataritzako eta ostalaritzako hainbat tokitan ere banatzen ziren *Sasoianen* aleak, Hitzaren banaketa sarean txertatuta. Hedapen aldetik, bost herrietara

iristen zen inolako arazorik gabe. Banaketa bera, era berean, txukuna eta zorrotza izaten zen. Hilabeteko azken ostiraletan banatu ohi zen, Udal Elkartearekin hitzartu bezala.

2.2. Webgunea: *sasoian.info*

Sasoian aldizkariaren lehen aleak 2008ko irailean ikusi zuen argia, eta handik hilabetera webgunea etorri zen. Webguneak berrikuntza txiki batzuk izan zituen 2009an, baina orokorrean garai hartako diseinu eta dinamika bera izan du orain arte. 2014ko udaberrian, martxo bukaera aldean, *Sasoianek* izaera berria hartu zuen, eta aldizkari digital moduan ekin zion. Kasu honetan, aldizkari terminoa baino egokiagoa litzateke egunkari digitala erabiltzea.

Hasierako urteetan aldizkari fisikoari ematen zitzaion lehenetsia, eta webgunea haren osagarria zen. Eguneko berriak, kirol agenda eta emaitzak eskaintzen ziren, baita argazki bildumak eta ikus-entzunezko propioak ere, baina oro har aldizkari fisikoaren erakusleioa zela esan daiteke. Bisitariak fidelizatzeko eta nabigatzaile berriak erakartzeko, eta batez ere parte-hartzaileagoa bihurtzeko, atal berri batzuk gehitu zitzaizkion webguneari. Berrikuntzak garaiko webgune gehienek eskaintzen zituzten antzekoak ziren: elkarrizketa digitalak, inkestak, foroa eta *Zu ere Sasoian* izenekoak; azken hori egun indartu den komunitatearen aurrekarietako bat zen. Erabiltzailea euskaraz irakurtzeko eta informatzeko prest zegoen, baina ez horrenbeste parte hartzeko. Beste garai batzuk ziren; sare sozialen gorakada oraindik ez zen eman.

Azken bi urtetan webgunea izan zen *Sasoianen* euskarri bakarra, eta garbi geneukan webgunea bizirik mantentzeko modu bakarra eguneratuta edukitzea zela, albisteak maiztasun gehiagorekin argitaratzea, eta genituen atalei ahalik eta etekin gehiena ateratzea. Erronka hori oso kontuan izanda heldu genion proiektuaren izaera berriari.



3. Lan esperientziaren zertzelada nagusienak

Zortzi urteko ibilbideak askorako eman dezake, baina badira gure lan esperientzian nabarmentzeko moduko hainbat zertzelada; batez ere, hedabideak izan duen harrera eta utzi dituen datuen inguruan, berrien trataerari dagozkionak eta baita idazkerari ere.

Irismena

Aro digitalean murgilduta gaude bete-betean. Ordenagailuez gain, eskuko telefonoek eta tabletek informazioa berehalakoan iristea ahalbidetu du, batik bat sare sozialen popularizazioari esker. Lehen ale kopuru zehatz bat ematen genuen argitara, eta ondoren herriz herri banatzen genuen aldizkaria; 4.000 ale banatzen ziren guztira, eta ale bera hainbat lagunek irakurri zezaketen, nahiz eta hori neurtzeko aukerarik ez dugun izan.

Webgunearen bidez jakin badakigu egunero-egunero zenbat lagunengana iristen garen, baita zeintzuk diren albiste bisitatuenak ere. Oro har, hilabeteko batez besteko kopurua 4.000 bisitari ezberdin eta 12.000 bisita ziren, eta urtekoa 16.000 bisitari ezberdin eta 100.000 bisita inguru. Gainera, goranzko joera zuen azken urteetan; lehengo bi urteetako kopuruak askoz ere xumeagoak ziren: 14.000 bisitari eta 40.000 bisita inguru.

Bisitari eta bisita kopuruaren hazkundearen arrakasta sare sozialek dute, eta horretaz jakitun, Facebook eta Twitter atariak erabili ditugu, baita Youtube ere. Azken finean, amu bezala erabiltzen ditugu, webgunean zintzilikatutako albiste, bideo eta argazki bildumetara erakartzeko. Horrez gain, guretzako ere informazio iturri eta kirolari/kirol taldeekin harremanetan jartzeko tresna bihurtu dira. Sare sozialei esker, gainera, jendearengana iritsi den ala ez ohartzen gara, albisteak elkarbanatzen dituztenean, gogokoa dutela adierazten dutenean edo iruzkintzen dutenean.

Facebook ataria 2010etik dugu erabilgarri eta **1.723** lagun izatera heldu da. Twitter kontua 2014ko apirilean sortu genuen, eta **481** jarraitzaile ditugu. Sare sozialak albisteei zabalkunde handiagoa emateko baliagarriak dira: partekatzeen bidez, informazio iturri bihurtu zaitezke ez bakarrik irakurleentzat, baita beste komunikabide batzuentzat ere. Zentzu horretan, *Sasoianek* bete du paper horri, dela eskualdeko tokiko hedabideentzat dela hedabide orokorragentzat.

Aniztasuna

Kirol kazetaritza bere osotasunean landu dugu. Errazena futbola, eskubaloia, saskibaloia eta arrauna bezalako diziplinetan buru-belarri jarri eta gainerako kirolen lekukotasun xumea ematea izango litzateke. Aniztasuna helburu inportantea izan da aldizkariaren ibileran eta bilakaeran.

Eskualdean gehien lantzen diren kirolak jorratu ditugu, zalantzarik gabe, baina praktikatzen diren gainerakoak ahaztu gabe, dela federatuak dela herrikoiak. Gehien ezagutzen diren modalitateak eta horren ezagunak ez direnak maila berean aurkeztu ditugu, eta trataera bera eskaini diegu. Alde horretatik, oharkagabeen pasatzen diren kirolen bitartekari ere bihurtu gara: sofbola, arku eta plater tiroa, izotz gaineko gimnasia, arraunketa egokitua, snowboarda, xakea, borroka arteak (kapoeira, judoa, karatea), fitnessa, skatea, kanikrosa eta automobilismoa, esaterako.



Gisa horretan, Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaian lantzen diren kirol mota guztien erakusleho informatibo izan nahi izan dugu, irakurleari berari ere aukera berriak aurkezteko. Kirolariek, kirol taldeek eta kirolzaleek asko eskertu ziguten jarrera hori, eta, alde horretatik, erreferentzi bilakatu ginela esan genezake.

Genero ikuspegia

Kirola gizonezkoei zuzendutako esparrua bailitzan jorratzen du hainbat hedabidek. Lantaldetik genero bereizketarik gabe tratatu dugu kirola: ez ditugu gizonezkoentzat edo emakumezkoentzat idatzi elkarrizketak, erreportajeak edo albisteak, kirolzaleentzat baizik; eskualdeko kirolen eta kirolarien berri euskaraz jaso nahi duen edonori, alegia.

Emakumearen presentzia ez da betebeharr bat izan gure lanean. Naturaltasunez jorratu ditugu aldizkariaren ardura jaso genuenetik, gure ardatzetako bat delako eta barnetatuta dugulako; adibidez, 37 zenbaki argitaratu ditugu orain arte, eta horien ia erdiak emakume kirolariak izan ditu protagonista azalean eta zenbakiko elkarrizketa nagusian.

Kirol mota batzuk, ordea, oraindik ere gizonezkoen espazio direla dirudite. Diziplina horietan emakumezkoak ere badirela eta gizonezkoak bezalaxe entrenatzen/lehiatzen direla erakutsi dugu: Barçako futbol jokalaria Laura Gomez, Emakumea Pilotariren ekimenak eta txapelketak, Eusko Tren Liga eta emakumezkoen traineruak, Ainhoa Murua triatlleta, fitness-kulturismoa lantzen duen Sandra Pino, Oiana Blanco judoka, Bikote Mistoek Krosa edo Zarauzko Emakume Korrikalarien taldea...

Bestalde, amatasuna eta kirola uztartzen zituen lau orrialdetako erreportaje berezia landu genuen 14. zenbakian. Bertan, ama diren hiru kirolariren (horietako bat kirol medikua ere bai) testigantza jasoz: Esther Cruz eskalatzaila zumaiarra, Iratxe Aranburu korrikalari zarauztarra eta Eder Etxeberria arraunlari eta mediku oriotarra.

Dibulгатiboa

Horren ezagunak ez diren kirolen berri ematearekin batera, haien oinarritzko funtzionamendua eta araudia ere azaltzen dugu. Irakurlea kokatzeko, kirolarien azalpenak hobeto ulertzeko eta pixkanaka-pixkanaka kirol mota berriak ezagutzen joateko ezinbesteko pausoa dela uste dugu.

Beroketa Ariketa atalaren bitartez, era berean, kirol praktika osasuntsuari begirako hainbat gomendio eman dugu. Izan ere, kirola ez baita lehia bakarrik. Txapelketen eta partiden berri eman dugu, baina baita ariketa fisikoaren onura fisikoen eta psikikoen berri ere.

Heziketaren baitan, berdintasuna jorratzen saiatu gara: arestian aipatuta genero ikuspegiarekin; ezinduen kirola tratatuz (Edorta de Anta arraunketa egokituko munduko txapelketan, 20. zenbakian); atzerritarren gizarteratzea kirolaren bitartez (ikasle atzerritarrak eskola kirolera animatzeko programa, 14. zenbakian; Orioko kultur aniztasunaren jaiaren baitako futbol partida, 18. zenbakian); edota organu-transplanteen ondoren kirola egiten jarraitu daitekeela azalduz (giltzurrunetako transplante izan duen Aitor Aulestia, 15. zenbakian).

Horrekin guztiarekin, gainera, mezu zuzena helarazi nahi izan diegu irakurle gazte nahiz helduei: kirola edonork egin, bizi eta gozatu dezakeela, ez dagoela mugarik.



Idazkera

Idazkera zuzena eta argia erabiltzen saiatu gara hasiera-hasieratik, edonork erraz ulertzeko moduan. Urola Kostako Hitza komunikatzeko eta informatzeko orduan euskararen normalizazioan egin duen lana berme handia zen, zentzu horretan. Alde horretatik ez da lan nekeza izan, baina izan ditugu zailtasunik ere.

Hainbat kirol errazago tratatu ditugu, urteetan zehar euskarazko beste hedabide batzuk landu dituztelako eta beren terminologia gizartearen hiztegian jada txertatuta dagoelako: futbola, saskibaloia, pilota, txirindularitza eta arrauna, hain justu. Modalitate horietako hiztegia landuta eta garatuta dago, baina horren ezagunak ez diren kiroletako ohiko esamoldeak –askotan ingelesez edo gaztelaniaz erabiliak- modu jatorrean euskaratzeak hainbat buruhauste ekarri dizkigu. Adibide bat jartze aldera, Stand Up Paddle surf modalitatea nobedade gisa sartu zenean zalantzak izan genituen nola deitu kirol berriari, ingelesezko hiru hitz horiek ez gintuen gehiegi konbentzitzen, are gutxiago gondoling delakoak. Stand Up Paddle-a zer bada: surfa arraunean egitea. Erredakzioan erabaki genuen arraun surfa deitzea jatorra zela, eta halaxe hasi ginen; gerora, beste batzuek ere hala erabili dute, nahiz eta paddle bezala indar handia hartu duen jendartearen. Bitxikeriak bitxikeri, arraun surfa bezalako euskarazko izenak denboraren poderioz eta erabileraren poderioz, gure eguneroko lanean txertatu ziren eta naturaltasunez erabiltzen genituen.

Garapen hori guretzako baliagarria izan den bezala, irakurleentzat, kirolzaleentzat eta kirolarientzat ere baliagarria izan zela uste dugu.

Kirolak badu lehiatik asko, baita epikotasunetik ere. Irakurri besterik ez dago edozein egunkaritako kirolen atala. Idazkera horrek jakin-mina eta arreta handia sorrarazten dio irakurleari. *Sasoianek* gehiago jo du, ordea, bide informatibotik ikuskizunetik edo espektakulutik baino. Goi mailako kirolaz ari ginenean zaila zen lehiaren ideia saihestea, batik bat kirolari profesionalak asko dutelako jokoan. Ez da hori, ordea, eskola kirolaren arima: kasu honetan kirola egiteak dakartzan onurak -gorputzari ekartzen dizkionak, lagun eta leku berriak ezagutzeko jarduera gisa, naturarekin harremanetan egiten den jarduera gisa eta abar-, horiek nabarmendu ditugu. Horrenbestez, lehia sustatzen duten hainbat esapide erabiltzea saihestuko dugu, eta hizkera zainduz.

Erantzun moduan, guretzat pozgarria izan da jakitea hainbat eskoletan aldizkaria ulermena lantzeko erabili dutela. Baita euskaltegietan euskara ikasleek material didaktiko gisa erabili dutela ere. Beraz, kirola euskaraz ematearekin bi helburu nagusi bete ditugu: eskualdeko kiroletako berri ematea eta euskararen normalizaziorako lanabes baliagarria izatea.



4. Ondorioak eta aurrera begira

Kirola oso eremu zabala da, lehia profesionaletik eskola kirolera artekoa, bizitzeko modu batetik osasuna zaintzerainokoa, eta argi dago mundu bat biltzen duela. Gure eskualdea, beste asko bezala, kirolzalea eta kirolaria da, eta komunikabideen ardura da interes horri neurri egokian erantzutea. Eta erantzun hori euskara hutsean izatea. Helburu horrekin sortu zen *Sasoian* proiektua, eta bide emankorra egin du urte hauetan. Erakutsi du eskualdeko kirol atari batek daukan potentziala baina, aldi berean, agerian utzi du erronka handiegia dela, eta erakunde publikoen babesa eta laguntza ekonomikoa ezinbestekoa dela halako proiektu bati bide emateko.

Kirolean euskararen normalizazioa bideratzeko hainbat kanpaina egin izan dira, bai elkarte barrura begira bai kanpora ere, eta eman beharreko urrats horietako bat komunikazioaren eta informazioaren eremua da. Irakurleei kirola euskaraz irakurtzeko aukera eman behar zaie, aukera hori izan behar dute, eta gure datuek erakutsi digute kirola euskaraz jasotzeko prest dagoela. Borondate hori badela. Gainera, zenbait kirolen berri nekez topatzen dela inon, edo ariketa fisikoko nahiz osasun arloko edukiak euskaraz eta idazkera ulerterrazean topatzea zaila dela.

Irakurlea, gainera, berriak edo ezezagunak zitzaizkion kirol esamoldeak euskaraz barneratzen joan da erabileraren poderioz. Beste edozein arlotan gertatu izan da, eta funtzionatu du: komunikabideei esker bere hiztegia aberastu du jendeak. Euskararen normalizazioan ekarpen garrantzitsua egin dezakeen ziurtasun guztia dugu. Baina, jakin badakigu, euskaraz den oro defizitarioa dela, eta erakunde publikoen laguntza ezinbestekoa dela.

Sasoian.info webgunea Urola Kostako Udal Elkartearena da, eta Urola Kostako Hitzak kudeatu eta elikatu du. Horrek egonkortasuna ematen dio proiektuari, baina, tamalez, Udal Elkartearen iritziz *Sasoianek* egin beharreko

bidea egin du. Une honetan, proiektua izoztuta dagoela esan genezake. Atariak zuen potentziala eta emaitza onak kontuan hartuta, proiektua eskualdeko euskarazko hedabideok hartzea aztertu dugu, eta aurrera jarraitzeko planteamendu berri bat hausnartzen ari gara. Itxaropentsuak gara, eta espero dugu epe ez oso luze batean abian jartzea proiektua. Horretarako lanean jarraituko dugu.